

ALDERDIAK

Ataturken garaitik
hedabideen arora

Gaurko bozetan hemezortzi alderdi politikok aurkeztuko dituzte zerrendak. Hona Turkiako alderdi nagusiak:

JUSTIZIA ETA GARAPENERAKO ALDERDIA. Alderdia iaz sortu zuten Bertutearen Alderdia debekatutako alderdi islamistako moderatuek. Arazoak izan litzake Armadarekin, irabaziz gero. Inkestek botoen %33 ematen diote alderdi islamistari.

HERRI ALDERDI ERREPUBLIKANO. Zentro-ekzkerreko alderdia Ataturkek sortu zuen. Azken bozetan ez zuen lortu botoen %10, lehen aldiz bere historian. Oraingo protesta giroan ondo kokatua da botoak biltzeko. Erreferentzia izan daiteke islamistez fidatzen ez direnentzat. Finantza munduaren sostengua ere badu.

GAZTERIAREN ALDERDIA. Uztailean sortu zuen Cem Uzan aberatsak. Nazioarteko Diru Funtzaren esaneko ez dela egongo esan du.

EZKER DEMOKRATIKOAREN ALDERDIA. Bulent Ecevit lehen ministroaren alderdia handiena zen Legebiltzarrean uda arte. Barne borrokak zirela-eta, diputatu erdiek utzi dute alderdia.

TURKIA BERRIA. Bulent Ecevit alderdiko buru ohi batzuek sortu dute, tartean Ismail Cem Atzerri ministroa zena. Legebiltzarreko bosgarren alderdi bihurtu zen, 60 diputaturekin. Emaitza txarrak aurreikusitakoak.

HERRI ALDERDI DEMOKRATIKOA. Kurduen aldeko aliantza. Turkiaren menpeko Kurdistanen sostengu handia du, baita etorkin kurdu asko bizi diren hirietan ere. Botoen %10 lortzeko moduan dago gaurko bozetan.

KANPAINA AMAIERA



VALDRIN XHEMAJ / EPA

KALEAK BANDERAZ BETETA. Turkiako kaleak gaurko Legebiltzarreko hauteskundeetarako botoa eskatzen duten alderdi politikoen ikurrez eta banderaz beteta daude. Irudian, Istanbul ageri da, jendez gainezka eta zirkulazioa gori-gori. Inkestean arabera, herritar askok oraindik ez dute erabaki nori emango dioten botoa.



MLADEN ANTONOV / EPA

ERDOGAN ASKOREN BEGIETAN. Aurreko gobernuaren kudeaketaren aurkako protesta gisa, hautesle gehienek Recep Tayyip Erdoganaren Justizia eta Garapenerako Alderdiari bozkatuko diotela diote aurreikuspenek. Irudian, bi emakume haren aldeko afixa bati begira Ankara, ostiralean.

AYSEL TUGLUK DEHAP HERRI ALDERDI DEMOKRATIKOAKO ZERRENDABURUA

«Beste alderdiek ez dute kontuan hartzen
Kurdistaneko jendearen sufrimendua»

A. M. | DONOSTIA

Fiirt herrian legebiltzarkide izateko hautagai aurkeztu da Aysel Tugluk Dehap alderdi kurduko zerrendaburua. Abokatua lanbidez, turkiarren eskubide berberak eskatu ditu kurduentzat EGUNKARIArekin izandako elkarrizketan.

Kurdistanen gaur bozak ongi doazen ikuskatzera joan diren Europako Batasuneko Legebiltzarreko, Europako Kontseiluko eta zenbait herrialde kideetako ordezkariak izan da, haien artean Koldo Gorostiaga eurodiputatu abertzalearekin.

■ Zeintzuk dira zuen alderdiaren helburu politikoak? Beste alderdiek inoiz ez dute kontuan hartzen lurralde honetan bizi den jendearen sufrimendua. Dehapek jendearen sentipenak kontuan hartzen ditu eta lurralde honetako antolaketa soziala.

■ Ankarako Legebiltzarrean ordezkari izateko duzue zuzela uste duzue?

Aurkari indartsuak ditugu mendebaldean, baina gure alderdiarentzako aurreikuspenak %10etik gorakoak dira.

■ Koalizioirik egingo zenukete behar izanez gero?

Guk gure programa daukagu. Programa bera duen norbait baldin badago elkarlanerako prest egongo gara.

■ Egia da Dehapek uko egin diola Kurdistanen autonomiari?

Denak herrialde berean bizi gara eta berdintasunean bizi behar dugu, eskubide berekin. Izan ere, herrialdearen demokratizazioak arazo guztiak konponduko ditu. Denbora luzea da turkiarrak eta kurduak elkarrekin bizi garela.

■ Ankarako kurduen hizkuntzaren eta giza eskubideen aldeko neurriak onartu zituen abuztuan. Zuek nahi bezain urrun joan zen?

Guretzat urrats ona da Gobernuak eman duena, baina ez da nahikoa; oraindik ez dugu onurarik jaso neurri horretatik. Demokratizazioa jendea-

MEHATXUAK

«Militarrek herritarrei esan diete kontrolpean bozkatuko dutela»

ren eskaerak kontuan hartzean datza. Hori gertatzen ez den bitartean ezin dezakegu esan arazoa konponduta dagoenik. Zorionez, Europako Batasunak lan pixka bat egin du, baina ezin ditu lurralde honetako arazo sakonak konpondu.

■ Turkiako agintariak zergatik jarraitzen dute Kadek alderdi kurdua debekatzeko?

Fobia diete herritarren eskarrei.

■ Hautesle kurduak mehatxuak jaso dituzte zuen alderdiari ez bozkatzeko. Beren etxeak erreko dituztela mehatxu egin diete.

Presioa gora eta gora egiten

ari da. Herriak bisitatzen izan garenean horixe ikusi dugu. Militarrak joan dira eta beraien kontrolpean bozkatuko dutela ohartarazi diete herritarrei. Herritarrak oso kezkatuta daude. Gainera, ebakututako herritarrak bozkatuz itzuli ahal izango diren bermerik ez daukagu.

■ Nork irabaziko ditu bozak?

Jendeak modu aske eta demokratikoan bozkatzen badu, guk espero dugu ordezkari izatea. Beste alderdiek ez daukate programarik hementxo jendearentzat.

■ Zein politika ezarriko luke islamiar moderatuek?

Ezin esan daiteke kurduentzat ezer egingo dutenik. Islama erabiltzen dute botoak lortzeko, baina jendeak haien alde bozkatzen badu izango da beste alderdien aurkako erreakzio moduan. Irabazten badute, arazoek berdin jarraituko dute eta beren programa gauzatzuz gero herrialdea berriro gerrara eramango dute.

Hondarribiko Udala

ORDAINKETARAKO IRAGARKIA

GOGORATZEN DA:

- 2002KO EKONOMI IHARDUEREN GAINEKO ZERGA,
- 2002KO BIDE PUBLIKOAK, MAHAI, AULKI ETA ANTZEKOEN OKUPATZEA,
- 2002KO LEIHO, ERAKUSLEIHO EDO ERAKUSMAHIEGIAK SALMENTA,
- 2002KO HILERRIAREN KONTSERBAZIOA, MAN-TENIMENDUA ETA APAINKETA,

ordainketari dagozkien ordainagiriak errekariguri gabe ordaintzeko epea datorren ASTELEHENEN AZAROA-ren 11an, bukatzen dela.

Errezibuen ordainketa banku entitate kolaboratzaileetan egingo da.

Kontsultarako tel. 943-644300 (Zergabilketa).

HONDARRIBIA, 2002ko irailak 17.
ALKATEA, Iza.: Borja Jauregi Fuertes.

ZUMARRAGAKO UDALA

IRAGARKIA

Zumarragako Hiri Antolamenduko Arauen berrikuspena: Aurrerapenari onspena ematea.

Zumarragako Udalak, 2002ko urriaren 14an eginko Osoko Bilkuran, Udala Erregimenari buruzko 7/85 Legeak bere 47.3. artikuluan adierazten duen gehiengoarekin, Zumarragako Hiri Antolamenduko Arauen berrikuspenaren Aurrerapena onartu zuen, Inaki Albiu Aparicio Arkitekto jaunak idatzitako moduan.

Hirigintza Planeamenduko Erregimenduaren 164. artikulua adierazten duena betez, aipatutako dokumentua jendaurrean jarri da, interesatuek planeamenduari buruzko iritzia eman edota beste aukera batzuk planteatu dituzten, betiere ondoren aipatzen den epe eta lekuan:

- a) Aurrerapenaren dokumentua aztertzeko lekua: Zumarragako Udala Bulego Teknikoa, bulego orduetan.
- b) Aztertzeko eta kasua balitz iritzia emateko epea: Iragarki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den biharamunetik hasi eta 30 eguneko epean. Aipatutako iragarkia 2002ko urriaren 31ko G.A.O.n, 207. zenbakikoan, argitaratu da; hortaz, erreklamazioak egiteko epea 2002ko azaroaren 30ean, larunbata, amaituko da, eguerdiko hamabitan.
- c) Irizkiak aurkezteko bulegoa: Herritarrak atzertzeko bulego orokorra.

Zumarragan, 2002ko urriaren 31n.
ALKATEAK, Sin.: Aitor Gabilondo Ruiz.

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA DEPARTAMENTO DE EDUCACION, UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

IRAKASLEEN EGONKORTASUN KONPROMISOA

2002ko urriaren 28ko Ebazpenaren bidez, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailako Langileriaren Kudeaketarako Zuzendariak, sail horren menpeko bitarteko irakasle egonkorren behin-behineko zerrenda argitaratu eman du.

Ebazpenaren testua eta irakasle egonkorren zerrendak hiru Hezkuntza Lurralde Ordezkaritzetako argitalpen-tauletan ikusi ahal izango dira eta aldi berean ere ondorengo helbide elektronikoan:

<http://www.hezkuntza.ej-gv.net>

Interesatuek urriaren 30etik azaroaren 18ra bitartean, biak barne, jarri ahal izango dituzte erabakiaren eta behin-behineko zerrendaren aurkako erreklamazioak hiru Hezkuntza Lurralde Ordezkaritzetan.

LANGILERIAREN KUDEAKETARAKO ZUZENDARIA